

BEZALA GAIZKI ERABILTZEAZ

Arrasate, 1979-XII-22

Endrike Knörr

Gero eta maizago, aho-lumetan agertzen den esaera batez aritu nahi nuke hemen oso labur.

Gauza ezaguna da *como* / *comme* erdal aditz-lagunak askotan expletiboak direla, hots, ez dutela berez adierarik:

Mi padre estuvo como gudari en Artxanda

edo

Comme directeur il est efficace

perpausetan, partikula horiek ez dute deus egiten, atribuzioa sartzen laguntzea besterik.

Honelako perpausak euskaratzean, oso oker ez banago, ezin dezakegu, hizkuntzaren sena bortxatu gabe, *bezala* erabil. Honetaz arrazoin osoa zuen Lafitte kalonje jaunak, bere Gramatikan honako hau idatzi zuenean:

“De même qu'en français l'attribut est parfois introduit par *comme*, *en qualité de*, *en guise de*, de même en basque on recontre le nominatif indéfini suivi de *bezala*, *comme*, *gisa*, en guise de; *cette construction ne paraît pas très basque*” (1).

Autore zaharretan nekez aurki daiteke *bezala* honelakoetan erabilia. Konparatibo funtzioa du beti *bezala* aditz-lagunak, nik ikusi ditudan exenpluetan bederen. Orobat *gisa*, *legez* eta kidekoek.

(1) *Grammaire Basque*, Baiona 1962, 126. orr. Azken perpausa nik nabarmendua.

Nola itzuli, orduan, erdarazko partikula horiek euskarara? Ez noa gauza berriak esatera, ageri-agerian dauden bi bideak errepikatzen baizik:

- a) Nominatibo mugagabea: *mandatari, soldado*.
- b) Prolatiboa: *zorotzat*.

Noiz zein erabili ez da erraz esaten. Badirudi, halaz guztiz, bata edo bestea gabe, bata ala bestea erabiltzen direla zenbaitetan. Lafitte apaiza luzaz mintzatu da honetaz, aditzi kasu eginez (2). Guk hemen zerbait erantsi nahi genuke, *como / comme* nola itzul daitekeen kontutan hartuz:

1. Sujetoaren atributoa *nominatibo mugagabe*an joan ohi da.
Pelloc ez zuen irabazle atera nahi.

2. Lanbidea, kargua e. a., orobat, *nominatibo mugagabe*an.

Morroin ibili zen garai hartan Aitor.

3. Okerreko identifikazioak *-tzat* du maizenik.
Sorgintzat hartu zuten (= Adiskide hartu zuten).

Gainerakoan, prolatiboak eta nominatibo mugagabeak ordainkide dirudite:

Liburu hau erabiltzen dugu ikaspide tzat.

Horra, bada, txosten xume hau. Ongi esanak onar, gaizki esanak barka.

(2) *Ibidem*, 123 eta darr. orr. Interesgarria da ere Txillardegiren *L'emploi de l'indéfinit en souletin. Fontes Linguae Vasconum*, IX (1977), 29. orr.

(3) Puntu hau Txillardegik aipatzen du bere *Euskal Gramatikan*, Donostia 1978, 50. orr.